

Ingurumen Hezkuntza Kanpaina


IKASTETXE JASANGARRIAGOAK

ETORKIZUN JASANGARRI BATERAKO HEZKUNTZA

Antolatzaileak:



Fundación Laboral del Cemento
y el Medio Ambiente





ZERTAN DATZA IKASTETXE JASANGARRIAGOAK KANPAINA?

Ikastetxe Jasangarriagoak CEMA Fundazioak (Fundación Laboral del Cemento y el Medio Ambiente) zementu fabriken inguruan dauden ikastetxeetan abian jarri duen ingurumen hezkuntza kanpaina bat da.

Kanpaina honekin hezkuntza komunitate osoa kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dugu jasangarritasuna sustatzearen, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzen laguntzearen eta klima aldaketaren ondorioak arintzearen garrantziari buruz, ikasgeletatik hasita.

Klima aldaketa da gaur egun dugun arriskurik handiena, berotze globalak ingurumenarentzat eta pertsonentzat dituen ondorio izugarri larriak direla eta.

CEMA Fundazioa aurrendaria da Europako zementuaren industrian, sektore honetan, patronala eta sindikatuak lankidetzan ari dira jasangarritasunaren alde eta lehentasuna ematen diote klima aldaketaren aurkako borrokari.

Heziketaren bidez lortu dezakegu hezkuntza komunitate osoak klima aldaketaren aurkako borrokan parte har dezan eta inguru jasangarriago baten alde lan egin dezan.



KLIMA ALDAKETARI BURUZ IKASTEA

Ikastetxe Jasangarriagoak kanpainen zehar, lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilek jasangarritasunaren, GJHen eta klima aldaketaren inguruko lantegi batean parte hartuko dute, eskolan bertan, ingurumen hezitzaile espezializatu baten eskutik.

Oso jarduera dinamikoa eta parte hartzekoa da. Bertan jakingo dute klima aldaketa zer den eta nola eragiten digun, eguneroko bizitzan haren efektuak arintzeko ekintzak gauzatzeko motibazioa jasotzeaz gain.

Kanpaina honi esker, parte hartzen duten neska-mutilek ikasiko dute klima aldaketa zertan datz bere arriskuak zeintzuk diren, gutako bakoitzak ingurunearekin duen harremana zein den, gure eguneroko jardueren ingurumen aztarna zer-nolakoa den eta nola lagundu dezakegun egoera hau hobetzen.

Gainera, kanpainak neska-mutilen adinera egokitutako zenbait baliabide eta hezkuntza material interaktibo eskaintzen ditu, ikasgelan zein etxean ikasten jarrai dezaten, modu dibertigarrian, jolasaren bidez.

Kanpaina doakoa da ikastetxeentzat eta jolasa erabiltzen du hezkuntza tresna gisa.

Ikas dezagun jostatuz!















IKASTETXE JASANGARRIAGOAK KLIMA ALDAKETA ETETEKO

Klima aldaketari aurre egitea guztion erantzukizuna da eta gogora ezazu: **ekintza guztiak dira garrantzitsuak!** Neska-mutilek, beren familieek eta gainerako hezkuntza komunitateak klima aldaketari aurre egin diezaiokegu erraz asko.

HONA HEMEN ZENBAIT AHOLKU!

-  Zer edo zer erosi aurretik, pentsa ezazu benetan behar duzun.
-  Berrerabili gauzak ahal bezainbeste baztertu aurretik.
-  Birziklatu zure hondakinak, honela saihestuko duzu hondakin horiek zabortegetan amaitzea eta bigarren bizitza bat emango diezu materialei.
-  Ibili, bizikletaz mugitu edo erabili garraio publikoa toki batetik bestera joateko.
-  Itzali erabiltzen ari ez zaren argiak eta gailu elektrikoak, energia ez xahutzeko.
-  Aurreztu ura, oso baliabide mugatua baita.
-  Bildu eskolako hamaiketako paperean, plastikoa edo aluminioa erabili ordez, eta erabili ontzi berrerabilgarri bat edo oihalezko poltsa bat hura eramateko.
-  Paseoan edo eskolan zaudenean, eraman ura botila berrerabilgarri batean.
-  Erosi tokiko eta sasoiko produktuak.
-  Jarraitu klima aldaketari buruz ikasten eta partekatu informazio hori zure lagun eta senideekin.



Oso joko dibertigarriak aurkituko dituzu gure webgunean:
educambiental.fundacioncema.org

**ANIMA ZAITEZ ZURE
OHITURAK ALDATZERA
KLIMA ALDAKETA ETETEKO!**

#IkastetxeJasangarriagoak